

PLAZA

SORKUNTZAZ BESTE (ETA VI) ›

Nondik abiatzen da artista? Zer eragin dute haren sorkuntza lanean sorkuntzaz besteko faktoreek, faktore ekonomikoek, sozialek, afektiboek, sexuak...? Zer eragin du publikoaren erantzunak, arrakastak edo porrotak? «Askoz erosoago sentitzen naiz proiektuez hitz egiten, obrez edo artelanez hitz egiten baino», dio Saio Olmok. Proiektua edo artelana, sorkuntza beti.

Saioa Olmo

«Nik ere ez dakit zenbateraino diren artistikoak nire lanak»

JON BENITO
Bilbo

Astearte arratsaldea. Postre hondarrak terrazetako mahaietan. Urrutira ikusi dut. Argazkilariekin dator. Egin dituzte erretratuak. Irribarreak aurpegia betetzen dio. Apenas dabilen inor kalean. Bero. Nora egin du ihes jendeak? Non babesten dira?

Nerbioi gaineko zubiak eta Bilbo Zaharra. Elkarrekin ibili gara kale zolatuetan. Torreko taberna batean Saioa Olmorekin (Bilbo, 1976). Zalantzan eta barrez, ziur eta serio. Inguruko elkarriketetan galtzen dira gure hitzak.

Saioa Olmok dio: «Koktelazioak Pripublikarren jolas moduko bat izan zen. Nola erakutsi, beste modu batera izan daitekeela uste zenuena, jolasarekin baino hobeto? Koktelazioak-en bidez, jendeak identitate estatiko eta mugikorren gainean hausnartzea nahi genuen. Identitatea ez baita zerbait estatikoa, identitatea etengabe aldatzen ari baita.

«Ezberdina da 'frantsesa naiz' edo 'horrela jokatzeko dut' esatea. Ez da gauza bera 'emakumea naiz, emakume izateak berekin dakarrenarekin' edo 'emakume gisa jokatzeko dut' esatea. Ezberdina da, ez da gauza bera, 'nekazaria naiz' edo 'lurra lantzen dut' esatea. Ezberdina da 'euskal herritarra naiz' edo 'euskal herritarra sentitzen naiz' esatea. Izatea eta sentitzea ez baitira gauza bera».

Nondik abiatzen zara?

Proiektu bakoitza ezberdina da. *Emancipator* (www.emancipator.org) egiteko ideia ez da nirea, ezta Amasterena (www.amaste.com) ere, nahiz proiektua haren estrukturarekin elkarlanean egin nuen. Proiektuaren ideia Alex Mitxelena eta Hugo Olaizola arkitektoena da. Alex Mitxelenarekin topatzean, papezko proiektu hura errealtatera ekartzea, eta, horretarako, erakusteko moduko maketa erreal bat egitea proposatu nion. Besteren ideiatik abiatu nintzen *Emancipator*-en.

Euskadi Trade Mark (www.euskadi-tm.com) nire ekimenez hasi nuen ordea. Zer dela-eta hautatu nuen gai hori eta ez beste bat? Garai hartan nortasun korporatiboak ikertzen ari nintzen. Bestalde, kultur sektoreko langilea naiz, eta *souvenir*-en bitartez kultura merkantilizatzen eta turismo interesetara moldatzen ari zela ikusi nuen. Horiek izan ziren *Euskadi Trade Mark*-era eramanez ninduten faktoreak. Egin nezakeen Euskadikoa ez, beste edozein lekutakoa ere; Bartzelonakoa edo edonongoa, baina interesgarria iruditzen zitzaidan Euskadirekin gainean egitea: sentsibilitate berezia dugu

«Erosoago zait proiektuez hitz egitea, obrez baino. Proiektuak prozesuaz ere hitz egiten du»

hemen nortasunarenarekin. *Euskadi Trade Mark*-ek kulturaren balio ekonomikoaz eta merkataritzak kultura sustatzeko moduaz hausnartzen du. Kultura eta ideologia batzen ditu proiektuak, eta asmoa ez ezik, titulua ere probokatzailerik bezain limurtzailea iruditu zitzaidan.

Enkarguak ere egoten dira: komisario batek gai baten inguruko erakusketa antolatzen ari dela esaten dizu... *Galleteras* (www.galleteras.net) proiektua esate baterako, arte ekimen baten bidez ikerketa historiko bati beste bultzada bat ematen laguntzeko eskatzen dizute...

Lanerako modu asko daude: zure inizatibaz edo besteren enkarguz egin dezakezu lan, edo deialdien bidez, *Divergentes*-en (www.artesdivergentes.com) adibidez. Orduko hartan, artistak enprekin lan egitearena ondo ezkontzen zen artea ulertzeko dudarekin. Artea ekintza positibotzat dut: artistak enpresaz eta enpresak artistaz ikas dezakeela iruditu zitzaidan.

Proiektu artistikoez hitz egiten duzu, ez obraz.

Nik bakarrik ez, artean bakarrik ez, beste diziplinetan ere hitz egiten da proiektuez. Askoz erosoago

«Artean, ezberdintasuna ez dago diskurtsoan, hori praktikan jartzeko moduan baizik»



sentitzen naiz proiektuez hitz egiten, obrez edo artelanez hitz egiten baino. Azkenean, lan edo artelan hitzak, museo edo galeria batean ezar dezakezun objektu bati egiten dio erreferentzia. Baina, niretzat, proiektuak prozesuaz ere hitz egiten du, autoretzak karga txikiagoa du...

Norabait noanean ez dut artista naizenik esaten, proiektu artistikoak egiten ditudala esaten dut. Ez nau artista hitzak duen zamak ordezkaten. Artista bat jentotzat

«Ez nau artista hitzak duen zamak ordezkaten. Artista bat jentotzat jotzen da»

jotzen da, eta, niretzat, jenioa izatea ez, baizik eta inizatiba eta zenbait gako izatea da garrantzitsua.

Eskultura bat proiektu bat ere izan daiteke, baina, artelantzat hartzen du jendeak. Nik jendeak artelantzat hartzen ez dituen proiektu asko egin ditut. Ez pentsa, asko kezkatzen ninduen horrek. Ze irudi ematen dut besteren aurrean? Nola aurkezten naiz? Artista naiz ala ez naiz? Zer-nolako enkarguak egingo dizkidate? Baina horregatik ez nituzke beste modu bateko gauzak egingo.

Zure lan batzuk ikusita ordea, lan horiek artistikotik zer duten pentsatzen dut. Bai, bai. Nik ere ez dakit zenbateraino diren artistikoak nire lanak.

40 ■ Koldo Zuazua zinema ekoizlea

«Julio Medemen 'Caótica Ana' filmak harrapatu eta hegan eramango zaitu jarrera egokia baduzu».



42 ■ 'Bere kasa', Photomuseumen

Kazetaritza grafikoaren memoria berreskuratzeko asmoz, 72 argazki paratu dituzte Zarautzen.

SORKUNTZAZ BESTE (eta VI) >



W. J. B. MANHERRA / ARAZOTRES

Errealitatea modu alternatiboan erakusten saiatzen dira, eta hori izan dezakete artistikotik.

Non egiten duzun lan, nondik abiatzen zaren, ze helburu dituzun... ezaugarri horiek ematen diote lanari zentzia. Artean diskurtsoak oso antzekoak dira. Ezberdintasuna ez dago diskurtsoan, hori praktikan jartzeko moduan baizik. Praktika horri ematen diot nik garrantzia.

Proiektuak du garrantzia orduan, emaitzak baino gehiago? Lan egiteko moduak, bitartekoak, praktikak...

Proiektua joan-etorriko bidea izan ohi da: ikusleengana heltzen bada, ikusleengan eragiten du; baina zuk praktikan jartzen duzunean zu ere aldarazten zaitu.

Taldean egiten duzu lan.

Artearen munduan, egilea, egile bakarra, estetika bat goraipatzen da. Baina, sarritan, estetika horretan harrapatuta geratzen da egile bera.

Baina taldean lan eginda, non geratzen da faktore pertsonala? Pertsona horren zirkunstantziak, historia, kultura, asmoak...

Nahiz eta taldean urtu, faktore pertsonala beti hor dago. Kolektiboan lan egitean pertsona bakoitzak bere faktoreak ekartzen ditu taldera. Kalterako ere eragin dezakeen arren, asko aberasten dute besteren iritzi, asmo, gogo, indarrek.

Bakarka aritzea baino gehiago gustatzen zait taldean aritzea.

Ideiak produzitzen

Artea, diseinua, komunikazioa. Espazioak eta jendeak, lekuak eta pertsonak, herriak eta enpresak. Horiek denak elkartzen eta nahasten ditu Saioa Olmok (Bilbo, 1976) bere lanetan. Irizar enpresaren organizazioa oinarri hartuta Zumaiako antolaketa eredu soziala aztertu zuen Divergentes-en. Parte hartzea, jolasa, eztabaida. Euskadi TM da haren azken lanetako bat. Euskadi marka bat da? Zer da baskotasuna? Bereiz daitezke marka eta identitatea? Gauza bera dira?

Egile baino, ideia sortzaile. Emaitza baino, abiapuntua eta prozesua nahia. Ideiak produzitzen egiten du lan.

Kezkatzen zaitu ikusleak, baldintzatzen du zure sorkuntza lana?

Arte Ederretako ikasketak amaitu nituenetik kezkatu nau. *Abisalen* (www.espacioabisal.org), artearentzat eksklusiboa izango ez zen eremu bat sortzeko, artearen harresiak apurtu edo gaindituko zituen proiektu bat egin nuen orduan. Askotan arte munduko zenbait jenderengana besterik ez gara iristen. Alta, ni beti saiatu izan naiz ahalik eta jende gehienarengana iristeko moduko gauzak egiten: museo batera inoiz joango ez den jendearengana heltzen... Baina, batzuetan, saiatu arren, jende horrengana heldu nahi duzun arren, ez duzu lortzen. Eta alderantziz, beste jende batenga-

na iristeko bidean, ikusle horien gana heltzen zara.

Publizitatean iragarkiak nola inpaktua izan duen neur daitekeen bezala, artean ez dago artelanekek jendearengan eraginik baduten, eta, izan badute, zenbaterainokoa duten neurtzeko estrategiarik.

Baina asmo guztiei jartzen diezu web orri bat, eta orri horietan foroak ere egoten dira. Nolabait, saiatzen zara ikusleekin komunikatzen, haiek ere obrara erakartzen, proiektuan parte hartzerantz bultzatzen...

Ikuslea proiektura erakartzeko, ikuslea proiektuan parte hartzerantz bultzatzeko modu bat da. Niri ez zait bazter batean geratuko den zerbait egitea interesatzen, jendearengana heltzea da nire asmoa. Jendeak proiektuan parte hartzeko modu bat ere bada... baina azken aldiak politikariek eta hainbeste hitz egiten dute parte hartzeaz... erabiltzen duten moduarengatik, hainbestetan erabiltzen dutelako, hitzari ematen zaion zentzuarengatik —zer da parte hartzea?—, balioa galitzen du.

Eragiten dizu beste erakunde edo enpresentzat sortzeko? Enkarguak asko baldintzatzen du lana?

Proiektuaren arabera. Norentzat eta nola egingo duzun aztertu behar izaten da halakoetan. *Emancipator* atzeratu bazen, finantzabidea aurkitzeko zailtasun handiak izan genituelako izan zen. Proiektu kritikoa bat zen! Eta proiektu bat kritikoa dena... Nori eskaini behar genion? Banketxe bati? Ikeari? Kontraesanean eroriko ziren!

Pripublikarrak (pripublikarrak.net/blog) kolektiboko partaide ere bazara. *Optikak* (www.optikak.org) lanean emakumeek zer eta nondik ikusten duten arakatu nahi izan zenuten. Asko eragiten du sortzerakoan emakume izateak?

Asko kezkatzen nau horrek. Demagun seme-alabak izateko asmoa dudala: seme-alabak izanez gero, ezin dut asmo artistikoa garatu, ama eta guraso izateak asko baldintzatuko bailuke nire asmoa.

Baina ez da hori soilik. Joan zaitenez museo garrantzitsuenetako erakusketetara: emakumezko baino gizonezko gehiagoren lanak topatuko dituzu. Zergatik da hori? Faktore batzuek eragin handia dute horretan. Emakume artistek euren buruarengan duten segurtasun falta da bat. Lanak nork jurtzen dituen da beste bat. Eta juzu horiek ze baliotan oinarrituta dauden da beste bat.

Baina zer egin daiteke sistema guztia jarrera eta gustu batzuk ebaluatzeko prestatua badago?